

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ANTOLAKUNTZA, GIZA BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAREN KALITATEA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

LAS RELACIONES EN EL ÁMBITO LABORAL NOS AFECTAN, ¿QUÉ HACER?

KODEA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Maiatzak 9, 10 eta 11	TOKIA/ IKASGELA	Bilbo. IVAPeko egoitza (Recalde zumarkalea, 18)
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	09:00-14:00
MATRIKULA EPEA	Apirilak 13	ONIRITZI EPEA	--
IKASLE KOPURUA	15 pertsona	HARTZAILEAK	Toki erakundeetan lana egiten duten pertsonak
HAUTATZE IRIZPIDEAK	Herritarren arretan lana egiten duten pertsonak lehentasuna izango dute	LEHENTASUNA	Altua
IRAKASLEA	Bzero Marketing	MATERIALA	Ikastaroari dagokion materiala eskuragarri egongo da
DISEINUA	EUDEL-FORUAK-IVAP	AZPIEGITURA	Ordenagailu eramangarria, proiettagailua, internetera sarbidea, bozgorailuak, papelografoa

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Gaitasun sozio-emozionalak hartu eta norberarekiko ongizatea gehitu, herritarrekin eta lankideekin lana egiteko garaian emozioak egoki kudeatzeko.
IKASLEEN HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> Lan-erlazioetan sortzen diren asegabetasunen arrazoiak identifikatzen ikasi. Errealitate desberdinak identifikatzeko gaitasunak hartu tolerantzia, malgutasun eta moldakortasun gehiagorekin. Pertsonen arteko harremanetan gaitasun emozionalak garatzeko teknika desberdinetan trebatu. Pertsonen arteko harremana amaitzean, ardura eta tentsio mailak gutxitzeko errekurtsoak garatu.
GAITASUNAK	Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da herritarrekin eta lan-eremuan dituen erlazioetan sortzen diren egoera desberdinei modu eraginkor batean erantzuteko, auto-ebaluaketa eta hobekuntza arauak barneratuta.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA	Saioetan zehar talde-lanak egingo dira, rol-playingak bertaratuen artean, eta, horretaz aparte, formula desberdinak probatuko dira jarduera berriak barneratzeko. Lan egiteko modu horiek denak, alde batetik, irakasleak prestaturiko suposizioetan oinarrituko dira, eta, bestetik, kasu erreala landuko dira, beti ere, saioetan landuriko gidetan oinarrituak.
--------------------	---

MOTIBATZAILEAK DIREN HARREMANAK: Gure buruan grabatzen duguna.

PROGRAMA	<ol style="list-style-type: none"> Bihotza edo burua: sentitzen duen burua, pentsatzen duen burua Pertsona erreaktiboak versus pertsona proaktiboak: gure eraginaren eremua. Zenbait unetan agertzen diren eta mugatzen gaituzten arrazoi gabeko sinesmenak eta pentsaera ezkorrak.
-----------------	--

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ANTOLAKUNTZA, GIZA BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAREN KALITATEA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

LAS RELACIONES EN EL ÁMBITO LABORAL NOS AFECTAN, ¿QUÉ HACER?

- 1.AKTIBITATEA: Aintzat hartu behar diren iritziak.
- 2.AKTIBITATEA: Besteak aldatzeko modurik hoberena norbera aldatzen hastea da.
- 3.AKTIBITATEA: Idatzi eskutitz bat zure izenean.
- 4.AKTIBITATEA: Ardura eremuaren eta gure eraginaren eremuaren deskribapena.
- 5.AKTIBITATEA: Norberak mugatzen dituen pentsamenduak identifikatzeko testa.
- 6.AKTIBITATEA: Argi ikusten uzten ez diguna ezabatu eta burua arindu: pentsamendu-emozio-akzio zikloa.
- 7.AKTIBITATEA. Indarra duten mezuen prestaketa.

PERTSONEN ARTEKO ERLAZIOAK OPTIMIZATZEN KOMUNIKAZIO EMOZIONALEKO GAITASUNEN GARAPENAREN BITARTEZ

- a. Nola mantendu lasaitasuna herritarren eta lankideen profil desberdinekin aurrean.
- b. Ingurunetik jasotzen den erantzuna: nolakoa da gure komunikazio estiloaren kalitatea? Ezkutuko gaitasunak:
 1. Besteak ikusten dutena: nire jokaera
 2. Besteek entzuten dutena: nire komunikatzeko gaitasuna
 3. Besteek sentitzen dutena: nire jarrera bideratzailea
 4. Nik esaten, pentsatzen edo interpretatzen dudana
 5. Bat ez datozen mezuak.
 - 1.AKTIBITATEA: Haserrearen eta amorruren kudeaketa. Bere eraginak.
 - 2.AKTIBITATEA: Osagairik onenak: aurretikakoa, oraingoa eta hurrengoa.

ETA HURRENGOAN...SENTITZEN DUEN BURUA: Nire gimnasio pertsonala martxan jartzen.

- a. Akzio plana: jarduera protokoloak lan-eremuan.
 - 1.AKTIBITATEA: IN/ OUT matrizea

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Eginiko aktibitateak eta ariketak. Ondorengo gaitasunak ebaluatuko dira:
 - ✓ Ikastaroan lantzen diren edukiak ikasteko orduan erakutsiriko jarrera.
 - ✓ Saioetan agerian ipinitako motibazio eta interesa.
 - ✓ Proposatzen diren aldaketekiko moldagarritasuna.
 - ✓ Gelan proposatzen diren ariketak praktikara eramateko garaian erakutsitako ekimena eta autonomia.
 - ✓ Bere komunikazioan ageri duen koherentzia.
 - ✓ Gelako beste kideekin erakutsitako harremana.
 - ✓ Gela egindako aktibitateetan erakutsiriko auto-kontrola eta estresaren kudeaketa.
 - ✓ Erakusten den norberaren buruaren ezagutza eta autokritikarako ahalmena gelan jorratzen diren puntuekiko.
 - ✓ Bertaratu den saioetan lorturiko aprobetxamendua.
- Ikastaroa eman duen pertsonak baloratuko du 1etik 5erako eskalan gaitasun bakoitzean lorturiko emaitza. Guztira 45 puntu izango dira.

EBALUAKETA

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ANTOLAKUNTZA, GIZA BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAREN KALITATEA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

LAS RELACIONES EN EL ÁMBITO LABORAL NOS AFECTAN, ¿QUÉ HACER?

Ikastaroa gainditu ahal izateko beharrezkoa izango da gutxienez 24 puntu lortzea gaitasun denen baturan. Azken emaitza GAI/ EZ GAI moduan agertuko da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

ZIURTAGIRIA DIGITALA: APROBETXAMENDUA

Ziurtapen elektronikoaren mezua jaso bezain pronto [ziurtagiri digitala](#) eskuragarri izango duzu. "IVAPekiko Izapideak" atalean sartu eta "Ziurtatzeak" botoia sakatu.

PREZIOA

145€ (AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jardura eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena).